

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



Ikus-Entzunezko Kultura II USE 2022

www.ehu.eus



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK

2022ko OHIKOA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

ORDINARIA 2022

**IKUS-ENTZUNEZKO
KULTURA**

**CULTURA
AUDIOVISUAL**

Azterketa honek LAU galdera ditu. GALDERA TEORIKO BAT ETA GALDERA PRAKTIKO BAT EGIN BEHAR DITUZU. Ez ahaztu azterketako orrialde bakoitzean kodea jartzea.

Guztira LAU galdera daude, eta bakoitzari gehienez 5 puntu emango zaizkio 10etik.

Arretaz begiratu irudiei, eta adi-adi irakurri proposatzen diren ariketak.

Saia zaitetz ahal den argien erantzuten, planteamendu bakoitzean ezarritako jarraibideak ahaztu gabe.

Galdera praktikoetan marrazteko papera erabil dezakezu, bai eta eskura daukazun edozein marrazketa-material ere (arkatzak, errotuladoreak, pinturak...).

Este examen tiene CUATRO preguntas. Debes contestar a UNA PREGUNTA TEÓRICA Y UNA PRÁCTICA. No olvides incluir el código en cada una de las hojas de examen.

Cada pregunta tiene una puntuación máxima de 5 puntos sobre 10.

Observa detenidamente las imágenes y lee con atención los ejercicios propuestos.

Procura contestar con la mayor claridad posible, sin olvidar las pautas marcadas en cada planteamiento.

Para las preguntas prácticas, puedes utilizar papel de dibujo y cualquier material del que dispongas (lápices, rotuladores, pinturas...).

**IKUS-ENTZUNEZKO
KULTURA**

**CULTURA
AUDIOVISUAL**

LEHEN GALDERA TEORIKOA

Begiratu **Daniela Ortiz** artista perutarren 2010eko “**97 empleadas domésticas**” serieko bi irudiei. Proiektua Peruko goi-klaseko jendeak Facebooken argitaratutako irudiekin eginda dago (ospakizunak, etxe-barruak, plazak, paseoak, etab.).

- Azter itzazu, hurrengo orrialdean ageri diren bi argazkietan, forma- eta konposizio-ezaugarriak. Aztertu irudikapena espazioaren eta denboraren konfigurazio gisa, kontuan hartuta nola erabili dituen egileak baliabide teknikoak.
- Interpreta itzazu irudiak, haietan aurkitu dituzun balio espresibo eta semantikoak oinarritzat hartuta.
- Begiratu irudien izenburuari iruzkina idazten hasi aurretik.

PRIMERA PREGUNTA TEÓRICA

Observa las dos imágenes de la artista peruana **Daniela Ortiz**. Pertenecen a la serie “**97 empleadas domésticas**” del año 2010 realizada a partir de las imágenes de la clase alta peruana publicadas en facebook (celebraciones, interiores domésticos, paseos a plazas, etc.),

- Analiza las características formales y compositivas de las dos fotografías. Analiza la representación como configuración espacio-temporal, considerando el uso que la autora haya podido hacer de los recursos técnicos.
- Interpreta las imágenes basándote en los valores expresivos y semánticos que hayas observado.
- Observa el título de las imágenes antes de iniciar tu comentario.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO PROBAK

2022ko OHIKOA

IKUS-ENTZUNEZKO KULTURA

PRUEBAS DE ACCESO A LA UNIVERSIDAD

ORDINARIA 2022

CULTURA AUDIOVISUAL

Daniela Ortiz





Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO PROBAK

2022ko OHIKOA

IKUS-ENTZUNEZKO KULTURA

PRUEBAS DE ACCESO A LA UNIVERSIDAD

ORDINARIA 2022

CULTURA AUDIOVISUAL

Daniela Ortiz



**IKUS-ENTZUNEZKO
KULTURA**

**CULTURA
AUDIOVISUAL**

BIGARREN GALDERA TEORIKOA

1. Egin iruzkin bat **John McNaught**-en 2012ko “Dockwood” izeneko narrazio grafikoaren zatiari buruz (adi! Komikiak bi orrialde ditu).

- Azaldu nola eraikita dagoen narrazioa.
- Identifika eta iruzkindu itzazu baliabide formalak: orrialdeen antolamendua, espazioa irudikatzeko baliabide grafikoak, bineten ezaugarriak, plano motak, narrazioaren egitura denbora-sekuentzia gisa, eta beste edozein xehetasun, baldin eta aukera ematen badu deskribatzeko nola egituratu duen egileak kontatu nahi zuen istorioa.
- Interpretatu narrazioa, atzeman dituzun balio espresibo eta semantikoak oinarritzat hartuta.

SEGUNDA PREGUNTA TEÓRICA

1. Comenta el siguiente fragmento de la narración gráfica de **John McNaught** “Dockwood” de 2012 (¡atención! el comic tiene dos páginas)

- Explica cómo está construida la narración.
- Identifica y comenta los recursos formales: la organización de la página, los recursos gráficos para representar el espacio, la estructura narrativa como secuencia temporal, el tipo de planos y cualquier otra peculiaridad que permita valorar cómo ha resuelto el autor la historia.
- Interpreta la narración basándote en los valores expresivos y semánticos que hayas observado.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO PROBAK


2022ko OHIKOA

PRUEBAS DE ACCESO A LA UNIVERSIDAD

ORDINARIA 2022

IKUS-ENTZUNEZKO KULTURA

CULTURA AUDIOVISUAL





Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO PROBAK

2022ko OHIKOA

PRUEBAS DE ACCESO A LA UNIVERSIDAD

ORDINARIA 2022

IKUS-ENTZUNEZKO KULTURA

CULTURA AUDIOVISUAL



**IKUS-ENTZUNEZKO
KULTURA**

**CULTURA
AUDIOVISUAL**

LEHENENGO GALDERA PRAKTIKOA

Iruzkindu berri duzun argazkiak edo narrazio grafikoa erabiliz, marraztu narrazio grafiko labur bat.

- **Narrazio grafikoaren iruzkina egin baduzu, eman jarraipena.**
- **Argazkien iruzkina egin baduzu, egin gutxienez 7 binetako narrazio grafiko bat, irudi bat edo biak erabiliz.**
- Garrantzitsua da, orrialdea antolatzeke orduan, espazioaren antolamendua eta egituratzen duzun denbora-sekuentzia bat etortzea sortzen duzun narrazioaren zentzuarekin. Gogoan izan soinu-dimentsioak —testua, ahotsak...— narrazio grafikoa aberasten duela.
- Oso balorazio positiboa emango zaie formatu-aukeraketa zaintzeari, plano motak, ikuspegiak eta abar aldatzeari eta narrazio-eritmo bat sortzeari.
- DIN A4 formatua gainditu gabe, marraztu itzazu gutxienez zazpi bineta. Eskura duzun edozein baliabide grafiko erabili dezakezu.

PRIMERA PREGUNTA PRÁCTICA

Dibujar una narración gráfica a partir de la narración gráfica o de las fotografías que acabas de comentar.

- **Si has hecho el comentario de la narración gráfica, dale continuidad a la misma.**
- **Si has hecho el comentario de las imágenes fotográficas, haz una narración gráfica de al menos 7 viñetas incluyendo una o las dos imágenes.**
- Es importante que elabores la página de modo que la organización del espacio y la secuencia temporal que estructures se correspondan con el sentido de la narración que construyas. Recuerda que la dimensión sonora – texto, voces...– enriquece la narración gráfica.
- Se valorará muy positivamente el cuidado en la elección de formatos, la variedad de tipos de plano, puntos de vista... así como la creación de un ritmo narrativo.
- Sin sobrepasar el formato DIN A 4 dibuja un mínimo de siete viñetas. Puedes utilizar cualquier recurso gráfico del que dispongas.

**IKUS-ENTZUNEZKO
KULTURA**

**CULTURA
AUDIOVISUAL**

BIGARREN GALDERA PRAKTIKOA

Aukeratu 1. edo 2. puntua

1. **Narrazio grafikoaren iruzkina egin baduzu**, egin ezazu soinu-gidoi bat. Asmatu testua, eta imajinatu irudi horiek zure ustez iradokitzen duten soinu-dimentsioa.

2. **Argazkien iruzkina egin baduzu**, imajinatu irudi horien soinu-gidoia. Asmatu testua, eta imajinatu irudi horiek zure ustez iradokitzen duten soinu-dimentsioa.

Bi kasuetarako:

- Sartu ahalik eta hots gehienak: bai irudikatutako elementuek espezifikoki sortuak direnak, bai ingurunea irudikatzeko baliagarritzat jo ditzakezunak, edo ikusizko narrazioarekin batera imajina ditzakezun guztiak, hala nola off ahotsa edo beste interpretazio batzuk pentsatzera eraman dezaketen eszenatik kanpoko soinuak.
- Antolatu gidoia ahalik eta egitura grafikorik argienarekin, hotsak binetekin behar bezala lotu ahal izateko. Adierazi noiz hasten eta noiz amaitzen den soinu bakoitza, eta bereizi ea bata bestearen ondoren ala aldi berean azaltzen diren. Ez ahaztu egoki deritzezun intentsitate-aldaketak zehaztea, baita binetei esleitzen diezun denbora-tartea zehaztea ere.

SEGUNDA PREGUNTA PRÁCTICA

Elige entre el punto 1 o 2

1. Haz un guion de sonido para el fragmento de **narración gráfica que has comentado**. Inventa los sonidos e imagina la dimensión sonora que consideres sugerida por las imágenes.
2. **Si has hecho el comentario de las imágenes fotográficas**, imagina un guion sonoro para las mismas. Inventa los sonidos e imagina la dimensión sonora que consideres sugerida por las imágenes.

Para los dos puntos:

- Integra el mayor número posible de sonidos: tanto los que vengan determinados de manera específica por los elementos representados, los que puedas considerar ambientales, o todos aquellos que la narración visual te permita imaginar, como voz en off, sonidos ajenos a la escena que pudiesen lugar a otras interpretaciones, etc.
- Organiza el guion con una estructura gráfica lo más clara posible, que te permita situar los sonidos en correspondencia con las viñetas. Señala cuándo empieza y cuándo termina cada sonido, diferenciando si se muestran sucesivos o simultáneos. No olvides precisar las variaciones de intensidad que estimes oportunas, así como la duración temporal que asignes a las viñeta.



CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

2022ko OHIKO DEIALDIA / CONVOCATORIA ORDINARIA 2022

IKUS-ENTZUNEZKO KULTURA

1. Irudi-iruzkina	5 puntu
<p>Aztertze gaitasuna izatea, alderdi hauek balioetsiz:</p> <ul style="list-style-type: none">• Irudikapenaren forma- eta konposizio-alderdiei behatzea.• Konfigurazioan erabilitako baliabide teknikoak identifikatzea. <p>Iruzkinean kontuan hartu behar dira irudiaren zenbait alderdi; besteak beste, formatua, laukiratzea, plano mota, ikuspuntua, argia, gardentasuna (eremu-sakontasuna), denboraren irudikapena / mugimendua...</p>	2,5 puntu
<p>Irudiaren ulermen semantikoa.</p> <p>Alderdi hauek balioetsiko dira: irudiaren dimentsio simbolikoa eta haren balio adierazgarriak ezagutzeko gaitasuna, eta balio horiek irizpide pertsonalen arabera interpretatzea —irizpide horiek aurrez egindako analisiarekiko koherenteak izan behar dute—. Halaber, zenbait arlotako —artearen historia, argazki-dokumentala, publizitatea, zinema, bideo-jokoak eta abar— hizkerak identifikatzea balioetsiko da.</p>	2,5 puntu
2. Narrazio grafikoaren ariketa	5 puntu
<p>Proposamena betetzea:</p> <p>Gutxienez zazpi binetako lana egitea, ariketaren planteamendua oinarri duen argumentu txiki bat garatzen duena. Garrantzitsua da narrazio-proposamen argi bat izatea, elementu plastikoaren garapena bideratuko duen ideia original bat, alegia.</p>	1,5 puntu
<p>Espazioa adierazteko baliabideen aberastasuna: plano, ikuspuntu, laukiratze edo formatu bat baino gehiago erabiltzea. Halaber, kontuan hartuko da orrialdea irudikapen-espazio gisa aprobetxatzea.</p>	2 puntu
<p>Denbora-egitura: narrazio-erritmo argumentuarekiko koherente bat ezarriko duen sekuentzia bat egitea. Oso balorazio positiboa emango zaio erritmoa sortzen laguntzen duten estrategiak erabiltzeari.</p>	1,5 puntu



CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

1. Narrazio grafikoaren iruzkina	5 puntu
Aztertze gaitasuna izatea, alderdi hauek balioetsiz: <ul style="list-style-type: none">• Binetak aztertzea: laukiratzea, ikuspuntuak, planoak, argia, komikiaren berezko elementu grafikoak eta abar balioestea.• Narrazio-egitura identifikatzea: baliabideek erritmo-sortzaile gisa duten balioari erreparatzea (formatuak aldatzea eta orrian antolatzea, eta denbora-balioak sartzen lagunduko duen beste edozein elementu grafiko).	1,25 puntu 1,25 puntu
Ulermen semantikoa: Kontakizuna eraikuntza gisa ulertzeari emango zaio garrantzia, kontaktzen den ekintzarekin dituen desberdintasunak kontuan harturik. Narrazioa behatutako adierazpen-balioetatik eta izan lezakeen dimentsio sinbolikotik interpretatzea.	2,5 puntu
2.- Soinu-gidoiaren ariketa	5 puntos
Irudiek iradokitzen duten egoera bat entzumenez birsortzeko gaitasuna izatea: Testua sartuz, dela elkarrizketa baten bidez dela off-eko ahots bat sortuz, irudia interpretatzeko eta haren esanahia aberasteko gaitasuna balioesten da.	1,5 puntu
Behatzeko eta imajinatze gaitasuna: Irudiek iradokitzen dituzten ahalik eta soinu gehienak hautematea da helburua, eta ikusizkoa baieztatze hutsetik harago kokatu behar da. Oso balorazio positiboa emango zaio soinuak agertzeari, baldin eta, iturria irudikatuta ez egonda ere, koherenteak badira eta narrazioa aberasten badute.	2 puntu
Soinu-planoen oharrak ikusizko planoekin erlazonaturik egitea, trantsizioen planteamendua, intentsitate-aldaketak... Oso balorazio positiboa emango zaio soinu-planoetarako iraupenak, irudiekin erlazonaturik betiere, ezartzeari (iraupen erlatiboak, esleitutako balio absolutua edozein dela ere).	1,5 puntu